

Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4566

EBAZPENA, 2010eko irailaren 6koa, Lurralde Plangintzaren eta Uren sailburuordearena; honen bidez industria-aurriak eraisteko proiektuak idazteko eta/edo burutzeko laguntzak arautzen dituen apirilaren 21eko 75/1998 Dekretuan ezarritako laguntzen emakida ebatzi eta argitara ematen da. Laguntza horietarako 2010eko deialdia Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2010eko martxoaren 31ko Aginduaren bidez egin zen.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2010eko martxoaren 31ko Aginduaren bidez, adierazi zen zein epe eta tokitan aurkeztu behar ziren 75/1998 Dekretuan ezarritako eskaerak; apirilaren 21eko dekretu horrek, industria-aurriak eraisteko proiektuak idazteko eta/edo burutzeko laguntzak arautzen ditu (2010eko apirilaren 13ko EHAA, 67. zk.).

Deialdi horretan, pertsona eta erakunde hauek aurkeztu dute eskaera, laguntza jasotzeko: Cía Pavimentos Alaveses SA (Copalsa), 786 Orse SL, Mendibai Promociones Inmobiliarias SL, Promociones Gailur Alde SL, Elizatxo SA, San Bartolomé Muinoa SA, Construcciones Eskiña SA, Inmaculada Astigarraga Barruetabeña andrea eta beste hiru ahizpa, Eulogio Omaetxebarria Solaegi jauna, Francisco Javier Aramendia Galdeano jauna eta Arrasate, Beasain, Ordizia eta Otxandioko Udalak.

Aurkeztutako eskaera horiek, guztira, gainditu egiten dute aipatutako 2010eko martxoaren 31ko Aginduan esleitutako aurrekontu-zuzkidura. Beraz, Lurralde Plangintzaren eta Uren sailburuordearen 2010eko ekainaren 16ko Ebazpen bidez, aipatutako aginduan jasotako zuzkidura handitzea erabaki da. Zuzkidura hori industria-aurriak eraisteko proiektuak idazteko eta/edo burutzeko laguntzetarako da. Zenbatekoa 1.314.301,62 eurora igoko da, eta honela banatuko da: 114.301,62 euro 2010eko ekitaldirako eta 1.200.000 euro 2011ko ekitaldirako. Ebazpen hori 2010eko uztailaren 9an argitaratu zen EHAA-n.

Beasain eta Ordiziako Udalen eskaerak eta Francisco Javier Aramendia Galdeano jaunarena epez kanpo aurkeztu dira. 2010eko martxoaren 31ko Aginduan hilabete bateko epea eman zen, eta agindu horretan

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

4566

RESOLUCIÓN de 6 de septiembre de 2010, del Viceconsejero de Planificación Territorial y Aguas, por la que se resuelve y hace pública la concesión de las ayudas previstas en el Decreto 75/1998, de 21 de abril, por el que se regulan las ayudas para la redacción y/o ejecución de los proyectos de demolición de ruinas industriales, cuya convocatoria para el año 2010 se realizó mediante Orden de 31 de marzo de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca.

Mediante Orden de 31 de marzo de 2010 de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, se señalaban el plazo y el lugar de presentación de solicitudes de las ayudas previstas en el Decreto 75/1998, de 21 de abril, por el que se regulan las ayudas para la redacción y/o ejecución de los proyectos de demolición de ruinas industriales (BOPV n.º 67 de 13 de abril de 2010).

En la presente convocatoria han presentado solicitud para percibir ayudas las siguientes personas y entidades: Cía. Pavimentos Alaveses, S.A. (Copalsa), 786 Orse, S.L., Mendibai Promociones Inmobiliarias, S.L., Promociones Gailur Alde, S.L., Elizatxo, S.A., San Bartolomé Muinoa, S.A., Construcciones Eskiña, S.A., Dña. Inmaculada Astigarraga Barruetabeña y tres hermanas más, D. Eulogio Omaetxebarria Solaegi, D. Francisco Javier Aramendia Galdeano, así como los Ayuntamiento de Arrasate, Beasain, Ordizia y Otxandio.

Dado que la cuantía total de las referidas solicitudes presentadas ha superado la dotación presupuestaria consignada en la precitada Orden de 31 de marzo de 2010, por Resolución de 16 de junio de 2010, del Viceconsejero de Planificación Territorial y Aguas se ha acordado aumentar la dotación presupuestaria recogida en la citada Orden destinada a las ayudas para la redacción y/o ejecución de los proyectos de demolición de ruinas industriales, hasta una cuantía total de 1.314.301,62 euros, distribuidos en 114.301,62 euros para el ejercicio 2010 y 1.200.000 euros para el ejercicio 2011. Dicha resolución fue publicada en el BOPV de 9 de julio de 2010.

Las solicitudes de ayuda presentadas por los Ayuntamientos de Beasain y Ordizia así como la formulada por el Sr. Francisco Javier Aramendia Galdeano, han sido presentadas extemporáneamente, fuera del

finkatu zen eskaerak aurkezteko epea eta tokia, industria-aurriak eraisteko proiektuak idazteko eta/edo burutzeko laguntzak arautzen dituen apirilaren 21eko 75/1998 Dekretuan ezarritako laguntzak eskatzeko.

Aipatutako agindua 2010eko apirilaren 13ko EHAA n argitaratu zen: epearen azken eguna aurten-go maiatzaren 13a izan zen. Ondorioz, Beasain eta Ordiziako Udalen eskaerak maiatzaren 14an aurkeztu zirenez, eta Aramendia Galdeano jaunarena maiatzaren 17an, finkatutako epeaz kanpo aurkeztu dira hiru eskaerak. Hortaz, hiru kasuetan, ezetsi egin dira.

Bestalde, Eulogio Omaetxebarria Solaegi jaunak egindako eskaera ez da zuzendu legez ezarritako epean; beraz, jaun horrek bere eskaera bertan behera utzi duela ulertu da.

Elizatxo SAk aurkeztutako eskaera, berriz, bi eraispen egiteko da. «Lorebat» eraikinarena eginda dago. Beraz, laguntza horrek ez du xederik, eraikin hori dagoeneko ez delako existitzen. Ondorioz, Elizatxo SAk eskatutako laguntzaren zati bat ezetsi egin da: hau da, «Lorebat» eraikina eraisteari dagokiona.

Zinema zaharra eraisteko Otxandioko Udalak egindako eskaeraren kasuan, udala ez da eraikinaren jabea erregistroan. Hori dela eta, ezetsi egin da laguntza hori, 75/1998 Dekretuaren 2. artikuluan adierazitakoari jarraiki. Artikulu horren arabera, laguntzen onuradunak instalazioen erregistroko titularrak bakarrik izan daitezke; eta udalak, betearazte subsidiarioa denean. Bigarren baldintza hori ere ez da betetzen, kasu horretan.

Aurkeztutako gainerako eskabide guztiek betetzen dituzte laguntzak jasotzeko araudian ezarritako baldintza formalak eta materialak.

Aipatutako 75/1998 Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoari jarraiki, eta Kalifikazio Epaimehaiak egindako proposamena ikusita, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.— Honekin batera doan eranskinean adierazitako industria-aurriak eraisteko egitasmoak idatzi edo/eta gauzatzeko laguntzak eman eta ukatzea.

2010eko ekitaldirako gordetako zenbatekoak eraispen-proiektuak idazteko gastuetarako izango dira, eta 2011ko ekitaldirako gordetakoak berriz, diruz lagunduko diren gainerako ekintzetarako.

plazo de un mes concedido por la Orden de 31 de marzo de 2010, que señala el plazo y el lugar de presentación de solicitudes de las ayudas previstas en el Decreto 75/1998, de 21 de abril, por el que se regulan las ayudas para la redacción y/o ejecución de los proyectos de demolición de ruinas industriales.

Publicada la citada Orden en el BOPV de fecha 13 de abril de 2010, el día final del plazo fue el día 13 de mayo del presente año. En consecuencia, presentadas las solicitudes de los Ayuntamientos de Beasain y Ordizia en fecha 14 de mayo y la del Sr. Aramendia Galdeano en fecha 17 de mayo, las tres solicitudes se han presentado fuera del plazo fijado para ello, por lo que en los tres supuestos procede su denegación.

Por otra parte, la solicitud formulada por D. Eulogio Omaetxebarria Solaegi no ha sido subsanada en el plazo legalmente establecido, por lo que procede tener a dicho Sr. por desistido de su solicitud.

Respecto a la solicitud presentada por Elizatxo, S.A. que tiene por objeto dos derribos, el correspondiente al edificio «Lorebat» ya ha sido ejecutado, por lo que esta ayuda carece de objeto al no existir ya dicho edificio. En consecuencia, procede denegar parcialmente la ayuda solicitada por Elizatxo, S.A., esto es, en lo que se refiere únicamente al derribo del edificio «Lorebat».

En cuanto a la solicitud formulada por el Ayuntamiento de Otxandio para el derribo del Cine viejo, cabe indicar que actualmente el Ayuntamiento no es propietario registral del mismo, por lo que, de acuerdo con lo señalado en el artículo 2 del Decreto 75/1998, que señala que sólo pueden ser beneficiarios de las ayudas los titulares registrales de las instalaciones, y además, los Ayuntamientos cuando actúen en virtud de ejecución subsidiaria, supuesto que tampoco se da en este caso, procede denegar esta ayuda.

El resto de las solicitudes presentadas cumplen los requisitos tanto formales como materiales exigidos en la normativa reguladora de estas ayudas para ser merecedoras de las mismas.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 11 del referido Decreto 75/1998, a la vista de la propuesta elevada por el Tribunal Calificador,

RESUELVO:

Primero.— Conceder y denegar las ayudas para la redacción y/o ejecución de los proyectos de demolición de ruinas industriales expresadas en el anexo adjunto.

Las cuantías consignadas en el ejercicio 2010 corresponden al coste de redacción de los proyectos de demolición y las del ejercicio 2011 al resto de las actividades objeto de la subvención.

Bigarrena.– Ebazpen hau eman eta hilabeteko epean izenpetuko dira lankidetzak-hitzarmenak Ingu- rumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eta pertsona nahiz erakunde onuradunen ar- tean; eta hitzarmen horietan zerrendatuko dira eman- dako laguntza horien inguruan aldeek izango dituzten konpromisoak, eskubideak eta betebeharrak.

Hirugarrena.– Eraispem-egitasmoak idaztea eta lanak gauzatzea bi eta lau hilabeteko epean egingo da, hurrenez hurren, arestian aipatutako lankidetzak- hitzarmena izenpetzen denetik kontatzen hasita.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agin- taritzaren Aldizkarian argitara dadila eta pertsona zein erakunde eskatzaile bakoitzari jakinarazi diezaiotela agintzea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Eusko Jaurlaritzako In- gurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arran- tzako sailburuari hilabeteko epean, ebazpena jakina- razten den hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko irailaren 6a.

Lurralde Plangintzaren eta Uren sailburuordea,
IGNACIO ACHUCARRO ARRUBARRENA.

Segundo.– En el plazo de un mes a contar des- de la fecha de la presente resolución se suscribirán los correspondientes convenios de cooperación entre el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca y las personas y enti- dades beneficiarias, en los que se articularán los com- promisos, derechos y obligaciones asumidos por las partes, en relación con las ayudas concedidas.

Tercero.– La redacción de los proyectos de demo- lición y la ejecución de las obras se realizarán en los plazos de dos y cuatro meses, respectivamente, conta- dos a partir de la suscripción del precitado convenio de cooperación.

Cuarto.– Ordenar la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, así como notificar la misma a cada una de las personas y entidades solicitantes.

Quinto.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricul- tura y Pesca del Gobierno Vasco, en el plazo de un mes contado a partir de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de septiembre de 2010.

El Viceconsejero de Planificación Territorial y Aguas,
IGNACIO ACHUCARRO ARRUBARRENA.

ERANSKINA

EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

Erakunde eta pertsona onuradunak	Industria aurriak	Zenbatekoa guztira (eurotan)	2010eko ekitaldia (eurotan)	2011ko ekitaldia (eurotan)
Cía Pavimentos Alaveses SA (Copalsa)	Campezo Emulsiones eta Slurrys-en instalazio zaharrak (Kanpezu)	120.941,29	13.279	107.662,29
786 Orse SL	Finex fabrika zaharra (Sondika)	106.040,00	3.135,00	102.905,00
Mendibai Promociones Inmobiliarias SL	Kossler Ibéricaren industria-nabea (Erandio)	420.955,20	55.131,00	365.824,20
Promociones Gailur Alde SL	«Fundiguel SA» galdategia (Iurreta)	72.468,68	7.021,00	65.447,68
Construcciones Eskiña SA	Treño zaharraren lursaileko instalazioak (Ermua)	5.580,00	1.050,00	4.530,00
Elizatxo SA	Porcelanas Bidasoa eta Zubelzuren instalazioak (Irun)	228.466,00	8.000,00	220.466
San Bartolome Muinoa SA	C.05 San Bartolome eremuko u instalazio - 1. fasea- (Donostia)	244.557,54	15.950,18	228.607,36
Arrasateko Udala	Biurtu pabiloia (Arrasate)	27.900,00	7.761,85	20.138,15
Inmaculada Astigarraga Barruetaña eta beste 3 ahizpa.	Guass industria-eraikina (Elgoibar)	86.576,49	2.973,59	83.602,90

UKATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK

Eskatzaileak	Industria aurriak	Ukoaren zergatia
Beasaingo Udala	Olaran fabrikaren zati bat eraistea (Beasain)	Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
Ordiziako Udala	Lasa baskuleria (Ordizia)	Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
Francisco Javier Aramendia Galdeano jauna	Barka industria-pabiloia (Legazpi)	Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
Eulogio Omaetxebarria Solaegi jauna	Ajangizko zerrategi mekanikoa	Eskaera ez da zuzendu.
Otxandioko Udala	Zinema zaharra (Otxandio)	Eskatzailea ez da instalazioaren jabea erregistroan.
Elizatxo SA	«Lorebat» eraikina (Irun)	Laguntzak ez du helbururik (eraikina eraitsita dago).

ANEXO

AYUDAS CONCEDIDAS

<i>Entidades y personas beneficiarias</i>	<i>Ruinas Industriales</i>	<i>Cuantía Total (euros)</i>	<i>Ejercicio 2010 (euros)</i>	<i>Ejercicio 2011 (euros)</i>
<i>Cía Pavimentos Alaveses, S.A. (Copalsa)</i>	<i>Antiguas instalaciones de Campezo Emulsiones y Slurrys (Campezo)</i>	<i>120.941,29</i>	<i>13.279,00</i>	<i>107.662,29</i>
<i>786 Orse, S.L.</i>	<i>Antigua Fábrica Finex (Sondika)</i>	<i>106.040,00</i>	<i>3.135,00</i>	<i>102.905,00</i>
<i>Mendibai Promociones Inmobiliarias, S.L.</i>	<i>Nave industrial de Kossler Ibérica (Erandio)</i>	<i>420.955,20</i>	<i>55.131,00</i>	<i>365.824,20</i>
<i>Promociones Gailur Alde, S.L.</i>	<i>Fundición «Fundiguel S. A.» (Iurreta)</i>	<i>72.468,68</i>	<i>7.021,00</i>	<i>65.447,68</i>
<i>Construcciones Eskiña, S.A.</i>	<i>Instalaciones de parcela antiguo «Treviño» (Ermua)</i>	<i>5.580,00</i>	<i>1.050,00</i>	<i>4.530,00</i>
<i>Elizatzxo, S.A.</i>	<i>Instalaciones de Porcelanas Bidasoa y Zubelzu (Irun)</i>	<i>228.466,00</i>	<i>8.000,00</i>	<i>220.466,00</i>
<i>San Bartolome Muinoa, S.A.</i>	<i>5 instalaciones en Área C.05 San Bartolomé -Fase 1- (Donostia-San Sebastián)</i>	<i>244.557,54</i>	<i>15.950,18</i>	<i>228.607,36</i>
<i>Ayuntamiento de Arrasate</i>	<i>Pabellón Biurtu (Arrasate)</i>	<i>27.900,00</i>	<i>7.761,85</i>	<i>20.138,15</i>
<i>Dña. Inmaculada Astigarraga Barruetabeña y 3 hermanas más.</i>	<i>Edificio industrial Guass (Elgoibar)</i>	<i>86.576,49</i>	<i>2.973,59</i>	<i>83.602,90</i>

AYUDAS DENEGADAS

<i>Solicitantes</i>	<i>Ruinas Industriales</i>	<i>Motivo de la denegación</i>
<i>Ayuntamiento de Beasain</i>	<i>Fábrica Olanan derribo parcial (Beasain)</i>	<i>Presentación de la solicitud fuera de plazo</i>
<i>Ayuntamiento de Ordizia</i>	<i>Basculería Lasa (Ordizia)</i>	<i>Presentación de la solicitud fuera de plazo</i>
<i>D. Francisco Javier Aramendia Galdeano</i>	<i>Pabellón industrial Barka (Legazpi)</i>	<i>Presentación de la solicitud fuera de plazo</i>
<i>D. Eulogio Omaetxebarria Solaegi</i>	<i>Serrería mecánica (Ajangiz)</i>	<i>No subsanación de la solicitud</i>
<i>Ayuntamiento de Otxandio</i>	<i>Cine viejo (Otxandio)</i>	<i>El solicitante no es el propietario registral de la instalación</i>
<i>Elizatzxo, S.A.</i>	<i>Edificio «Lorebat» (Irun)</i>	<i>La ayuda carece de objeto (el edificio ya está demolido)</i>